

Negozio ideiaren deskribapena- Zenity

Zenity software pertsonalizatua eskaintzen duen enpresa da, enpresei prozesuak optimizatzeko, logistika errazteko eta datuak kudeatzeko laguntza ematen diena. Produktuaren abantaila nagusia pertsonalizazioan eta moldagarritasunean oinarritzen da, bezeroen beharretara egokituz. Gainera, jasangarritasuna eta datuen pribatutasuna bermatzen ditugu, bezeroengan konfiantza sortuz. Gure jarduera GJHeKin lotzen da, hala nola, GJH 9 (berrikuntza eta azpiegiturak), GJH 12 (ekoizpen eta kontsumo jasangarriak) eta GJH 5 (genero-berdintasuna).AMIA analisia eginez, Zenityren aukerak digitalizazioaren gorakada eta datuen kudeaketa teknologiaren aurrerapenak dira, baina mehatxu nagusiak lehiakortasun handia eta datuen segurtasun arazoak dira. Indargune nagusiak softwarearen pertsonalizazioa eta talde teknologiko aditua dira, baina hasierako inbertsio altua eta bezeroen konfiantza irabazteko denbora dira gure ahuleziak.

Genero-berdintasuna sustatzeko, ordainsarien berdintasuna bermatzen dugu, familia eta lana uztartzeko malgutasuna eskaintzen dugu eta genero-berdintasunari buruzko prestakuntzak ematen ditugu.Zenity izenak "zentsu" hitzarekin lotura du, erabaki arrazionalak eta software eraginkorrak sortzeko ideiarekin bat eginez. Logotipoaren forma, infinituaren sinboloa, etengabeko hobekuntza adierazten du, eta koloreek (urdin argia eta berde lasaia) berrikuntza teknologikoa eta jasangarritasuna islatzen dituzte. Zenityren irudi korporatiboa gure enpresaren modernotasuna eta konpromiso soziala adierazten ditu.

